



OT-017/01-PTS NEKAZARITZA-BASOZAINZETAKOAK

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen batzarrak urriaren 11n Gasteizen egin zuen 4/2012 bilkuran besteak beste erabaki hau hartu zutela, gehiengoaz, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

#### **“I. Lurralde-antolamenduaren arloan:**

I. Aldeko irizpena ematea, behin betiko onartu baino lehen eta arau-egokitzapenak gehituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialari buruz, honako hauetan xedatutakoaren arabera: 4/1990 Lege, maiatzaren 31ko, Euskal Herriaren Lurralde Antolamendurakoaren Lehen Xedapen Gehigarrian eta 13.8 artikuluan; eta 263/1990 Dekretu, urriaren 2ko, Euskal Autonomia Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa-erregimena ezartzeari buruzkoan (397/1999 Dekretu, azaroaren 2koaren bidez aldatua), haren 2.1 eta 5.2 artikuluetan.

II.- Balio estrategiko handiko lurzoruko hondakin solidoen zabortegei eta hondakindegien erabilerearako matrizean hautemandako akats tipografikoa zuzenduko da, 3a izan behar baitu, 3 izan ordez; era berean, erabilera horretarako eta trantsizioko landa-paisaiako instalazio arriskutsuen erabilerearako, 3tik 2a-ra aldatuko da. Gisa berean, A motako instalazio teknikoak eta balio estrategiko handiko lurzorurako instalazio arriskutsuei dagokienez, erregimena 2a\*\*/3a\*\* izango da.

III. Grafismoa hobetu egingo da Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak antolatutako eremuan, bai eta Natura Parkeetako eta Biotopoetako errotulazioa ere, Antolamendu Planoen dokumentua argiagoa izan dadin, txostenaren gorputzean jasotako baldintzen arabera.

IV.- Espediente hau Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea, 4/1990 Legearen 13.9 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik behin betiko onetsi dezan.

#### **II. Uraren arloan:**

Uraren Euskal Agentziak, 2012ko martxoaren 5ean, aldeko txostena egin zuen, zehaztutako lortutako hauek betetzeko baldintzarekin:

Lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikin berriak egiteko baldintzei buruzko artikuluan, 11. artikuluan, baldintza hau jaso behar da: “Zortasun-eremuan eta 10 urteko errepika-denborako uholde-eremuetan, besteak beste, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-erabilerak gauzatu ahal izango dira, erriberako korridoreko ibai-ekosistemari eragin ez eta hura andeatzen ez bada. Haiei lotutako nekazaritzako eta abeltzaintzako edozein eraikin, azpiegitura edo instalazio baztertu behar da. Bestalde, 10 eta 100 urte arteko errepika-denborako uholde-eremuak oztopo fisiko artifizialik gabeko eremu moduan gorde behar dira.”

#### **III.- Ingurumenaren arloan:**

Ingurumenari dagokionez, kontuan hartuko da Ingurumen sailburuordearen 2012ko martxoaren 5eko Ebazpena, haren bidez Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek batera sustatutako “Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala” delakoaren Ingurumen Inpaktuari buruzko Behin Betiko Txostena adierazten baita.



III. Espedienteari honako txosten hauek gehitzea (ziurtagiri honi erantsita daude): Uraren Euskal Agentziarena (I. eranskina); Ingurumen sailburuordearen 2012ko martxoaren 5eko Ebazpena (II. eranskina), haren bidez Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek batera sustatutako "Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala" delakoaren Ingurumen Inpaktuari buruzko Behin Betiko Txostena adierazten baita; eta Osasun Publikoko Zuzendaritzarena."

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2012ko urriaren 15ean agiri hau egin eta sinatu dut.

IDAZKARIA



Sin.: Tomás Orallo Quiroga